

4- DIRU-ITURRIAK

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Chupito Chups bakar batek 2€ balioko du, txupito normal baten prezio berdina. Honez gain, deskontuak egingo ditugu, adibidez 10 Chupito Chupsen pack batek 15€ balioko du eta ez 20€. Gure produktuak txartelaren bidez edo efektiboki erosi ahalko dira dendetan, diskoteketan eta tabernetan. Honez gain, gure webgunean ere 10, 25 eta 50 Chupito Chupseko paketeak erosi ahalko dituzte gure bezeroak txartela erabiliz.